

Jakingarriak aldizkariak Heziketa Fisikoa Eskolan aztertzen du azken alean

2007/10/10

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dokumentazio Zentroak *Jakingarriak* aldizkaria kaleratu du, ikasturte honi dagokion lehena. Berez **62. zenbakia** da eta, aurrekoak bezala, EAeko ikastetxe guztietan eta Nafarroako eta Iparraldeko ikastoletan banatuko da. **1.200 ale** guztira.

Ale honen gai monografikoa da **Heziketa Fisikoa Eskolan**. Bost artikuluk lantzen dute gai hori, denak euskaraz idatzita. Hurrengo aleak ere gai horri eutsiko dio.

Gai monografikoaz jarduteko, espezialista hauek idatzi dute: Fernando Sánchez Bañuelos, Ana Makazaga, Maria Teresa Bizkarra, Carmen Peiró, Joseba Etxebeste eta Mikel Egibarrek.

Betiko moduan, aldizkariak **Liburu berrien albisteak** jasotzen ditu ale honetan ere, **aipu** mordoarekin batera, gehienak irakaskuntza alorreko jendeak esandakoetatik jasoak. Bukatzeko, berriz, Baliabideen atalean, **Txirikila** euskal jolas tradizionalaren berri ematen da.

